BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5423

1660/2011 EBAZPENA, urriaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ikasketak handitzeko laguntza-eskariak aztertzeko aurreikusitako batzordeko kideak izendatzeko dena. Laguntzak eskuratzeko deialdia, Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 1204/2011 Ebazpenaren bidez egin zen.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 1204/2011 Ebazpenaren bidez, Osakidetza herri-erakundeko langileei laguntzak emateko deialdia egin zen. Ebazpen horrek dioenez, aurkeztutako eskariak aztertzeko, erakundeko zuzendari nagusiak horretarako izendatutako balorazio-batzorde bat sortuko da.

Ebazpen horretan xedatutakoa betetzeko, indarrean dagoen legediak aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako langileei ikasketak handitzeko laguntzak emateko deialdia egiten duen Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 1204/2011 Ebazpenean aurreikusitako Batzordeko kide izateko honako jaun-andre hauek izendatzea:

Batzordeburua:

Titularra: Maite Paíno Ortúzar andrea, Kudeaketa, Antolaketa eta Giza Baliabideen Garapenerako zuzendariordea.

Ordezkoa: Francisco Serna Rodríguez jauna, Prestakuntzarako Erakunde Zerbitzuko burua.

Lehenengo bartzordekidea:

Titularra: María Hipólita Ramos Martínez andrea, Erizaintzako Prestakuntzako arduraduna.

Ordezkoa: María Gloria Gómez Calzado andrea, Erakunde Arloko teknikari arduraduna.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: María Jesús Ruiz de Ocenda García andrea, erizaintzako aholkularia.

Ordezkoa: M.ª Ángeles Cidoncha Moreno andrea, Erizaintzako irakaskuntza eta ikerketako arduraduna.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Carolina Ortega Ortega andrea, Aurrekontuetako zuzendariordea.

Ordezkoa: Jacinto Ruiz Osma jauna, Erakunde Zerbitzuko burua.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: J. Ignacio Fraile Esteban jauna, Osasun Laguntzako Zuzendariordetzako atalburua.

Ordezkoa: Jon Letona Aramburu jauna, Erakunde Zerbitzuko burua.

Idazkaria:

Titularra: Ana Patricia Pujana Uriarte andrea, Erakunde Arloko teknikari arduraduna.

Ordezkoa: M.ª Natividad Ortiz Ruiz de Loizaga andrea, Erakunde Arloko teknikari arduraduna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua), Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta, azkenik, Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari zuzenduta (Araba kalea, 45, 01006, Vitoria-Gasteiz). Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.